

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro a siendo las 10,30 horas, del día 14 de julio de 2017, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres. Concejales, D. Jesús Esteban Juanarena Apestegui, D. Álvaro Villanueva Azcarate, D. Joseba Martinez Rey, D. Joaquín María Martínez Choperena, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure. Excusan su asistencia los concejales D. Miguel Echamendi Hernández y D. Eduardo Urtasun Vidondo
Previo al inicio del primer punto del orden del día, el concejal del Grupo EHBildu, Sr. Martinez Rey informa que va a grabar la sesión.

1.- APROBACION DEFINITIVA DE CUENTAS 2016

Informa el alcalde Sr. Garralda, de que en el periodo legalmente establecido al afecto no se han presentado reclamaciones al expediente de cuentas que se aprobó inicialmente en sesión de 10 de mayo de 2017.

Tras lo cual, el Ayuntamiento en funciones de Comisión General de Cuentas acuerda por unanimidad aprobar definitivamente el expediente de cuentas de 2.016 que obra en el expediente de la sesión con el siguiente resultado

ESTADO DEL RESULTADO PRESUPUESTARIO

	EJERCICIO DE CIERRE
Derechos reconocidos netos	968.006,77
Obligaciones reconocidas netas	876.753,89
RESULTADO PRESUPUESTARIO	91.252.88

AJUSTES

Desviación financiación positiva	0,00
Desviación financiación negativa	0,00

Gastos financiados con Remanente de Tesorería	0,00
Resultado de operaciones comerciales	0,00
RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO	91.252,88

ESTADO DE REMANENTE DE TESORERÍA

	EJERCICIO DE CIERRE
+ DERECHOS PENDIENTES DE COBRO	891.617,47
+ Ppto. Ingresos: Ejercicio Corriente	84.417,37
+ Ppto. Ingresos: Ejercicio Cerrados	145.707,95
+ Ingresos Extrapresupuestarios	798.444,34
- Derechos de difícil recaudación	136.952,19
+ OBLIGACIONES PENDIENTES DE PAGO	217.887,72
+ Ppto. Gastos: Ejercicio Corriente	43.758,23
+ Ppto. Gastos: Ejercicio Cerrados	5.731,53
+ Gastos Extrapresupuestarios	168.397,96

+ FONDOS LIQUIDOS DE TESORERIA	395.643,38
+ DESVIACIONES FINANCIACIÓN ACUMULADAS NEGATIVAS	0,00
= REMANENTE DE TESORERIA TOTAL	1.069.373,13
Remanente de Tesorería por Gastos con financiación afectada	0,00
Remanentes de Tesorería por Recursos afectados	7.217,10
Remanentes de Tesorería para Gastos Generales	1.062.156,03

RESUMEN GENERAL DE TESORERÍA

COBROS

PRESUPUESTOS CORRIENTES	883.589,40
PRESUPUESTOS CERRADOS	17.894,20
INGRESOS EXTRAPRESUPUESTARIOS	854.695,17
TOTAL COBROS	1.756.178,77
EXISTENCIAS INICIALES	368.357,92

PAGOS

PRESUPUESTOS CORRIENTES	832.995,66
PRESUPUESTOS CERRADOS	26.501,27
GASTOS EXTRAPRESUPUESTARIOS	869.396,38
TOTAL PAGOS	1.728.893,31
EXISTENCIAS FINALES	395.643,38

TOTAL

2.124.536,69 TOTAL

2.124.536,69

2.- APROBACION DEFINITIVA PLANTILLA ORGANICA 2017

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que informa de que en el periodo legalmente establecido al afecto no se han presentado reclamaciones al acuerdo de éste Ayuntamiento de 10 de mayo de 2017 por el que se aprobó inicialmente la plantilla orgánica correspondiente al año 2017.

A la vista de lo cual, la corporación acuerda por unanimidad aprobar de forma definitiva la siguiente plantilla orgánica para 2.017:

1.-Funcionarios:

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1.1 Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel 15%: Complemento de puesto de trabajo 35,77%, Complemento de prolongación de jornada 10%, Jornada completa.

(*) 1.2. Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición restringido (promoción interna). Nivel: D. Condiciones de ejercicio: Vacante. Complemento de nivel 12%. Complemento de puesto de trabajo 35,77% Jornada completa, Complemento de prolongación de jornada 10%, carnet de conducir clase B

- Relación nominal de funcionarios

E.S.M.: Don Xabier Cía Urrutia.

2.-Personal laboral fijo.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de puesto: 30.20%, Complemento de prolongación de jornada 10%, Jornada: 71,44%.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de Puesto: 30,20%, Complemento de prolongación de jornada 10%, Jornada: 71,44%.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de Puesto de trabajo 8,77% Jornada: 29,33%. (activo)

- Relación nominal de empleados fijos en régimen laboral.

Auxiliar Administrativo: Doña Ana Isabel Ermeta Erro.

Auxiliar administrativo: Doña María José Garralda Zubiri.

Empleado de servicios múltiples: Don Ivan Echeverz Balda

3.-Servicios agrupados con los Ayuntamientos de Orreaga-Roncesvalles y Valle de Erro.

Denominación del cargo: Secretario. Número de plazas: 1. Forma de la provisión: Concurso-oposición. Nivel A. Complementos puesto de trabajo: 40%, Incompatibilidad 35% Jornada Completa.

Relación nominal de personal contratado en régimen administrativo Ezcurrea Irure, M^a Soledad. Secretaria interina. Situación: Activo.

(*)Empleado de Servicios Múltiples Nivel D – En caso de aprobar la convocatoria, el puesto de Empleado de Servicios Múltiples de Nivel E, quedará amortizado, si no se aprueba, el puesto que se extingue es el de Nivel D. cumpliendo con el criterio de no incrementar la plantilla orgánica.

3.- APROBACION DEFINITIVA CONVENIO URBANISTICO PARCELA 64, POLIGONO 9, UE-23 EN AURIZBERRI/ESPINAL

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que informa de que en el periodo legalmente establecido al afecto no se han presentado alegación alguna al acuerdo de éste Ayuntamiento de 10 de mayo de 2017 por el que se aprobó inicialmente el Convenio Urbanístico de la parcela 64, polígono 9, UE-23 en Aurizberri/Espinal, que tenía por objeto la sustitución de la cesión del 10% del aprovechamiento urbanístico de la mencionada parcela por su compensación en metálico y que en este caso ascendía a 9.699,36 euros

A la vista de lo cual, la corporación acuerda por unanimidad aprobar de forma definitiva el Convenio Urbanístico de la parcela 64, polígono 9, UE-23 en Aurizberri/Espinal, debiendo proceder el titular del terreno al ingreso en la cuenta del Ayuntamiento de la cantidad de 9.699,36 euros..

4.- APROBACION PLIEGOS INFRAESTRUCTURAS GANADERAS

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que respecto a la convocatoria de Infraestructuras Ganaderas, informa que la misma ha sido resuelta si bien no han sido incluidas todas las actuaciones que se solicitaron por falta de dotación presupuestaria por lo que ha habido que modificar el proyecto y ajustarlo a las actuaciones concedidas, que ascienden a 64.708,33 euros más IVA, correspondiéndole una subvención de 38.825 euros. Por ello, y debiendo proceder a su vez a la adjudicación de las obras conforme a la Ley Foral de Contratos, propone ejecutar el proyecto de infraestructuras ganaderas aprobando el gasto y aprobando el correspondiente pliego de condiciones, utilizando el procedimiento negociado sin publicidad y atendiendo, dada la dificultad de al obra, no solo a criterios económicos sino también técnicos, procediendo a invitar a las siguientes empresas: Construcciones Lakita, Construcciones Mariezcurrena, Construcciones Merino Arregui, y Construcciones Aezkoa.

Estando todos conformes, se acuerda por unanimidad, aprobar el gasto conforme a proyecto modificado y aprobar el pliego de condiciones que regirá

la adjudicación de la obra incluida en el proyecto de infraestructuras ganaderas 2017 redactado por Ekilan.

5.- APROBACION PLIEGOS ACTUACIONES FORESTALES 2017

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que respecto a la convocatoria de actuaciones forestales 2017, informa que la misma ha sido resuelta si bien no han sido incluidas todas las actuaciones que se solicitaron por falta de dotación presupuestaria por lo que ha habido que modificar el proyecto y ajustarlo a las actuaciones concedidas, que ascienden a 21.167,19 euros más 10% de IVA, correspondiéndole una subvención de 13.486,87 euros., proponiendo ejecutar el proyecto de actuaciones forestales aprobando el gasto y aprobando el pliego de condiciones que regirán los trabajos a realizar, siendo el criterio de adjudicación, dada la entidad de las actuaciones a realizar, exclusivamente el precio y procediendo a invitar a las empresas de la zona concedoras de los trabajos a ejecutar.

Estando todos conformes, se acuerda por unanimidad, aprobar el gasto conforme a proyecto y aprobar el pliego de condiciones que regirán las adjudicaciones de las obras incluidas en el proyecto de actuaciones forestales 2017 redactado por Ekilan. Invitando a las siguientes empresas: Zibur, Desbroces Berragu, Basolan Sociedad Microcooperativa, Sergio Hernandez, José Luis Saragüeta. Ion Erneta y Mendi Lan.

6.- CONVOCATORIA ACTUACIONES FORESTALES 2018

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que respecto a la convocatoria de Actuaciones Forestales 2017-2018, de conformidad con lo acordado en Comisión, propone participar incluyendo las obras solicitadas que no entraron en la campaña 2016-2017, así como la limpieza de cunetas de Lastur, Odia, etc.. reuniéndose con el concejal Sr. Martinez Choperena para ver si es necesario incluir alguna actuación más.

Estando todos conformes y aprobada partida presupuestaria, se acuerda por unanimidad, participar en la convocatoria de actuaciones forestales 2018, con inclusión de las obras mencionadas y elaboración del correspondiente proyecto.

7.- MOCIÓN DEROGACIÓN DE LA LEY DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que en relación con esta nueva moción promovida por la FNMC, sobre derogación de la Ley de Estabilidad Presupuestaria que ha estado a disposición de todos los concejales, informa que este Ayuntamiento ya ha aprobado otras mociones en la misma línea, si bien entiende que hay que seguir apoyando y aprobando estas mociones con la idea de que finalmente se modifique la Ley de Estabilidad Presupuestaria que limita y perjudica enormemente a los Ayuntamientos y sobre todo aquellos que como el nuestro tienen una economía saneada y capacidad de gasto.

Pregunta el concejal Sr. Martínez Rey a la Secretaria si le había llegado la moción, contestándole que no, que no la había recibido.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar la siguiente moción en su integridad:

“DEROGACIÓN DE LA LEY DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA

La Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera - que desarrolla el artículo 135 de la Constitución Española- recoge tres reglas fiscales de obligado cumplimiento: estabilidad o equilibrio presupuestario, sostenibilidad financiera o límite de deuda y regla de gasto. La ley, entre otras cuestiones, señala que las entidades locales de Navarra deberán mantener una posición de equilibrio o superávit presupuestario y que dicho superávit se destinará a reducir el nivel de endeudamiento. Posteriormente, se modificó esta disposición para permitir a los Ayuntamientos que cumplieren una serie de requisitos y destinaran una parte del superávit a inversiones financieramente sostenibles. Unas inversiones que en ningún caso dan salida a las necesidades de los municipios y al de la ciudadanía en su conjunto.

En cuanto a la regla de gasto a la que se hace referencia en la Ley, la LOEPSF establece que la variación del gasto computable de las Corporaciones Locales no podrá superar la tasa de referencia de crecimiento del PIB a medio plazo de la economía del estado español, estableciendo el 2,2 por ciento como la tasa de crecimiento del gasto computable para 2017.

La aplicación de la Ley de Estabilidad Presupuestaria y las limitaciones que supone su desarrollo son un ataque frontal a las Entidades Locales, sus competencias y su propia existencia, provocando un golpe durísimo al municipalismo. Esta ley tiene un marcado carácter recentralizador, mermando y limitando en gran medida el funcionamiento de las distintas administraciones al servicio de la ciudadanía, quedando muchos ayuntamientos prácticamente intervenidos, y sin capacidad para atender las necesidades ciudadanas más urgentes.

Con la excusa de la crisis, se ha obstaculizado que los gobiernos locales puedan reforzar sus plantillas con el personal necesario para combatir las crecientes desigualdades, para luchar contra la emergencia habitacional, para modernizarse, etc. Y se les ha forzado a generar superávits millonarios que se destinan a pagar a los bancos mientras la precarización y las desigualdades se disparan.

Así pues, ante las políticas de recentralización y de los recortes sistemáticos derivados de políticas de austeridad extrema, es necesario que se dote de mayor autonomía y potestad normativa a los ayuntamientos, y que no se les

obligue a acumular superávits millonarios en la caja o a destinarlos a amortizar deuda. Porque las Entidades Locales necesitan esos recursos para asegurar la cohesión social, para apuntalar el tejido productivo local, generar actividad económica que reduzca el desempleo y para ayudar a quienes peor lo están pasando.

En este contexto, los Municipios de Navarra debemos seguir trabajando en la defensa de la autonomía que les corresponde por voluntad popular y por Ley. La reivindicación y el desarrollo de las competencias que tiene la Comunidad Foral de Navarra para la administración y organización de sus propias instituciones, son la mejor muestra de ello. No es aceptable que la Ley de Estabilidad Presupuestaria usurpe esta potestad y someta a las entidades locales navarra a criterios económicos y presupuestarios que obstaculizan su buen funcionamiento y capacidad de inversión.

Por tanto, con la aprobación y desarrollo de esta Ley, a las Entidades Locales de Navarra se les niega la capacidad e iniciativa que les corresponde como institución. Y por supuesto, también a las entidades e instituciones del resto del Estado. Y esto no se debería aceptar. Más allá de partidos e ideologías, se trata de defender la potestad económica y financiera de nuestras instituciones. Entendemos que tiene que buscarse una posición común, compartida por todas las instituciones, para evitar que esta ley pueda seguir aplicándose y castigando a la ciudadanía de nuestros municipios.

Por todo ello el Pleno del Ayuntamiento del Valle de Erro, adopta el siguiente acuerdo:

- 1.- Rechazar el contenido de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera aprobada y aplicada por el Gobierno de Madrid el 12 de abril del 2012.*
- 2.- Instar al Gobierno español a adoptar urgentemente las medidas necesarias para derogar la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera en el espacio de tiempo más breve posible.*
- 3.- Informar a la ciudadanía del contenido de este acuerdo a través de los medios a su alcance.*
- 4.- Notificar este acuerdo a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, Gobierno de Navarra, Parlamento de Navarra y al Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas.”*

8.- MOCION SOBRE EL PLAN DIRECTOR DE LA POLICÍA FORAL

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez Rey, que informa que la moción a tratar, es una moción aprobada en el Parlamento de Navarra a propuesta de

cuatro grupos parlamentarios en apoyo al nuevo Plan Director de la Policía Foral. Y ello debido a que aquí se dan los índices de policías más altos de toda Europa y de que lo que se trata de conseguir es que la Policía Foral se convierta en la policía de referencia en Navarra, asumiendo todas las competencias como ya lo están haciendo la Ertzaina o los Mossos d'Esquadra, perdiendo presencia la Guardia Civil y la Policía Nacional.

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que considera que esta moción es excluyente con otras policías, que un Ayuntamiento como este no tiene mucho que decir al respecto y no va a aprobarla. Entiende que todas las policías son necesarias, válidas y hay que excluirlas, por otra parte la Policía Foral también tiene competencias de tráfico, de medio ambiente, estupefacientes etc. Opinión que es corroborada por el concejal Sr. Villanueva. Toma la palabra el concejal Sr. Juanarena que entiende que este es un tema de convenio entre el Gobierno de Navarra y el Estado. Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey que manifiesta que se trata de una moción de apoyo para que la Policía Foral pueda adquirir más competencias de las que tiene, añadiendo que muchas veces se nos llena la boca de que somos muy navarros pero a la hora de manifestarse no se apoya. Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Choperena que señala que en el Amejoramiento está contemplado que se adquieran más competencias y por esa línea hay que seguir.

Tras el debate, la Corporación acuerda con tres votos a favor (Srs. Martínez Choperena, Juanarena Apesteguía y Martínez Rey) y dos votos en contra (Srs. Villanueva Azcarate, Garralda Erro) aprobar la siguiente moción procediendo a su tramitación:

“MOCION SOBRE EL PLAN DIRECTOR DE LA POLICÍA FORAL

El Gobierno de Navarra ha aprobado el 26 de abril de 2017 someter el Plan Director de la Policía Foral 2016-2020 a un proceso de participación pública.

El Plan Director –según se indica en el Portal del Gobierno- constituye la herramienta estratégica de referencia para la Policía Foral que permite prever el futuro, adaptarse al cambio y adecuar medios e instalaciones a los objetivos propuestos evitando la improvisación. Todo ello, en el contexto de un nuevo escenario político y social, habiendo sido superados precedentes planes directores y ante la necesidad de definir las funciones de la Policía Foral para optimizar el modelo policial navarro que ordene y asigne recursos, medios y presupuesto, garantice una gestión más rigurosa que coordine actividades y que garantice la participación ciudadana.

Por todo ello, este Ayuntamiento acuerda:

Primero.-Considerar que la Policía Foral de Navarra debe de ser la policía de referencia de nuestra comunidad constituyendo una auténtica policía integral

capaz de prestar con eficacia y eficiencia las competencias de seguridad pública.

Segundo.-Solicitar al Gobierno de Navarra y al Parlamento de Navarra que en el Plan Director de la Policía Foral que se está tramitando se haga una clara apuesta por el Tercer escenario de los previstos, el denominado Modelo Policial de Exclusividad, en el que se contempla la asunción y ejercicio de todas las competencias transferibles por parte del Estado en materia de Tráfico y Seguridad Vial, Seguridad Ciudadana y Medio Ambiente, procediéndose a la negociación que sea precisa con el Estado para que se desarrolle la plantilla de policías que se precisen, de forma que en la medida que se produzca ese desarrollo y despliegue las fuerzas de seguridad del Estado dejen, paralelamente, de prestar esas mismas funciones y competencias.

3

Tercero.-El Modelo Policial de exclusividad será el objetivo a alcanzar a medio plazo por el Gobierno de Navarra, de manera progresiva y de acuerdo con las disponibilidades presupuestarias. En cualquier caso, el coste de este modelo de exclusividad deberá de ser contemplado en la negociación del Convenio Económico de forma que el mismo se integre y sea reconocido por el Estado como una carga asumida por Navarra para el cálculo de la aportación derivada del Convenio Económico entre Navarra y el Estado,

Cuarto.-Defendemos un modelo policial en el que la Policía Foral de Navarra debiera de ser:

-Una Policía de carácter democrático que rinda cuentas de sus actuaciones, gestión y resultados tanto al Gobierno que la dirige como a la ciudadanía a la que presta servicio.

-Una Policía, respetuosa con todos los derechos humanos y dotada de una Ley que regule su funcionamiento e incorpore un Código Deontológico de Conducta y de Ética Policial basados en la Normativa y Práctica de los Derechos Humanos para la Policía del Alto Comisionado de la ONU para los Derechos Humanos y en el Código Europeo de Ética de la Policía recomendado por el Consejo de Europa.

-Una Policía de proximidad a la ciudadanía que orienta su actuación en base a un profundo conocimiento de los entornos de ambos mediante una alta capacidad analítica.

-Una Policía que interactúa tanto con la ciudadanía, asociaciones, entes públicos y privados y otras Instituciones responsables del bienestar y seguridad de la misma mediante la elaboración de planes tácticos y estratégicos en el marco de una Ley Foral de Seguridad Pública.

-Una Policía sujeta en sus actuaciones tanto a sus mecanismos propios de control interno y del Gobierno como a una Comisión Externa Independiente a contemplar en una Ley Foral de Policía.

-Una Policía que fomente de manera constante y continua la formación técnica, humanística, así como la profesionalidad en las funciones policiales y el desarrollo personal y profesional de todos sus miembros en igualdad de condiciones y oportunidades

-Una Policía competente en los dos idiomas que tienen reconocimiento oficial en Navarra.

Quinto.-El presente acuerdo será remitido al Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia del Gobierno de Navarra y al Parlamento de Navarra.”

Y sin más asuntos que tratar siendo las 11,05 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2017ko uztailaren 14an, 10:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura berezia egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apestegua, Álvaro Villanueva Azcarate, Joseba Martínez Rey eta Joaquin Maria Martínez Choperena. . Bilkuraburu alkatea, Enrique Garralda Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Miguel Echamendi Hernández eta Eduardo Urtasun Vidondo zinegotziek etortzerik ez duela jakinarazi dute. Gai zerrendako lehenengoari ekin baino lehen EH bildu taldeko zinegotziak, Martínez Rey, jakinarazi du bilkura grabatu behar duela.

1.- 2016ko KONTUEN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jnk., jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu 2017ko maiatzaren 10ean hartu zuen erabakiari, hots, 2016ko kontuen espedientea hasiera batean onesten zuenari.

Ondoren, Udalak, Kontuen Batzorde Bereziaren lana eginez, erabaki du aho batez 2016ko kontuen espedientea hasiera batean onartzea; hori bilkuraren espedientearen dago.

AURREKONTUAREN EMAITZEN EGOERA

HERTSIERA

Ixtea:

Aitortutako eskubide garbiak 968.006,77

Aitortutako betebeharrak 876.753,89

AURREKONTUAREN EMAITZA 91.252.88

EZARPENAK

Finantzazio positiboaren desbiazioa 0,00

Finantzazio negatiboaren desbiazioa 0,00

Diruzaintzako soberakinarekin
finantzatutako gastuak 0,00

Merkataritza operazioen emaitza 0,00

AURREKONTUAREN EMAITZA 91.252,88
EGOKITUA

DIRUZAINZAKO SOBERAKINAREN EGOERA

KOB RATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK **URTALDIAREN ITXIERA**
891.617,47

+ Diru-sarreraren aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia 84.417,37

+ Diru-sarreraren aurrek.: Itxitako urtealdia 145.707,95

+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak 798.444,34

- kobratzeko zailak diren eskubideak 136.952,19

+ **ORDAINTZEKE DAUDEN** 217.887,72

BETEBEHARRAK

+ Gastuen aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia	43.758,23
+ Gastuen aurrek.: Itxitako urtealdia	5.731,53
+AURREKONTUZ KANPOKO GASTUAK	168.397,96

+Diruzaintzako funts likidoak 395.643,38

+PILATUTAKO FINANTZAKETA
NEGATIBOEN DESBIAZIOAK 0,00

=DIRUZAINZAKO SOBERAKINA
OSOTARA 1.069.373,13

Diru-sarrerei lotutako gastuengatiko 0,00
diruzaintzako soberakina
Diruzaintzako Soberakina

Baliabideei lotutako diruzaintzako 7.217,10
soberakinak

Diruzaintzako soberakinak 1.062.156,03
Gastu Orokorretarako

DIRUZAINZAKO LABURPEN
OROKORRA

KOBRUAK

ORDAINKETAK

AURREKONTU ARRUNTAK	883.589,40	AURREKONTU ARRUNTAK	832.995,66
AURREKONTU HERTSIK	17.894,20	AURREKONTU HERTSIK	26.501,27

+AURREKONTU0 KANPOKO DIRU-SARRERAK	854.695,17	+AURREKONTU0 KANPOKO GASTUAK	869.396,38
KOBRUAK GUZTIRA	1.756.178,77	ORDAINKETAK GUZTIRA	1.728.893,31
HASIERAKO IZAKINAK	368.357,92	BUKAERAKO IZAKINAK	395.643,38
GUZTIRA	2.124.536,69	GUZTIRA	2.124.536,69

2.- 2017ko PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu 2017ko maiatzaren 10ean hartu zuen erabakiari, hots, 2017ko plantilla organikoa hasiera batean onesten zuenari.

Hortaz, Udalbatzak erabaki du aho batez 2017ko plantilla organikoa behin betiko onartzea, hona hemen:

1.-Funtzionarioak:

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1.1 Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %35,77, Lanaldiaren luzapenaren osagarria %10, Lanaldi osoa.

(*) 1.2 Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne sustapena) Maila: D. Lan egoera: Bete gabe. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria %35,77, Lanaldi osoa. Lanaldiaren luzapenaren osagarria %10, gidatzeko baimena B mota.

- Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Xabier Cía Urrutia.

2.- Langile finkoak.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20 Lanaldiaren luzapeneko osagarria %10, Lanaldia %71,44..

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20 Lanaldiaren luzapeneko osagarria %10, Lanaldia %71,44..

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 29,33%. (Jardunean).

- Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea Maria José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea. Ivan Echeverz Balda

3.- Orreaga eta Aurizko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Kokapena: Jardunean.

(*) D mailako Zerbitzu Anitzetako Langilea – Deialdia onartuz gero, E mailako Zerbitzu Anitzetako Langilearen lanpostua amortizatuko da, eta onartuko ez balitz, D mailakoa desgertuko da, plantilla organikoa ez handitzeko irizpideari jarraituz.

3.- HIRIGINTZA HITZARMENAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, Aurizberriko 9 POLIGONOKO 64 LURZATIAN UE-23 Exekuzio Unitatea

Alkateak Garralda Jk. hitza hartu du eta jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela alegaziorik aurkeztu 2017ko maiatzaren 10ean hartutako erabakiari, hots, Aurizberri, 9 poligonoko 64 lurzatian, UE-23 Exekuzio Unitateari dagokion Hirigintza Hitzarmena hasiera batean onesten zuena, lurzati horren hirigintza aprobetxamenduaren %10 uztearen truke diruz ordaintzea, 9.699,36 €.

Horiek horrela, udalbatzak erabaki du aho batez Aurizberri, 9 poligonoko 64 lurzatian, UE-23 Exekuzio Unitateari dagokion Hirigintza Hitzarmena behin betiko onartzea eta lurzatiaren jabeak Udalari 9.699,36 euro ordaintzea.

4.- ABELTZAINZA AZPIEGITUREN PLEGUEN ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Abeltzaintzako Azpiegituretarako deialdia ebatzi dutela eta eskaera guztiak onartu ez direla aurrekontu nahikorik ez baitago eta proiektua aldatu behar izan dela emandakoari egokitzeko; hortaz, proiektuaren aurrekontua 64.708,33 € gehi Bez da eta diru-laguntza 38.825 eurokoa. Orain lanak adjudikatu behar dira Kontratuen Foru Legearen arabera eta abeltzaintzako azpiegituren proiektua egitea proposatu du, gastua onartuz eta dagokion baldintza plegua onetsiz, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea proposatu du eta lanen zailtasunak kontuan hartuta, irizpide ekonomikoez gain teknikoak ere aurreikustea eta enpresa hauek gonbidatzea: Lakita Eraikuntzak, Mariezcurrena Eraikuntzak, Merino Arregui Eraikuntzak eta Aezkoa Eraikuntzak.

Denak ados egonik, aho batez erabaki da aldatutako proiektuari dagokion gastua eta 2017ko abeltzaintza azpiegituren proiektuan sartutako lanen esleipena arautuko duen baldintza plegua onartzea.

5.- 2017ko BASO JARDUEREN BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Baso Jardueren deialdia ebatzi dutela eta eskaera guztiak onartu ez direla aurrekontu nahikorik ez baitago eta proiektua aldatu behar izan dela emandakoari egokitzeko; hortaz, proiektuaren aurrekontua 21.167,19 € gehi %10eko Bez da eta diru-laguntza 13.486,87 eurokoa eta proposatu du baso jardueren proiektua egitea, gastua onartzea egingo diren lanen baldintza plegua onartzea, adjudikatzeko irizpidea prezioa bertzerik ez izatea, kontuan hartuta zer nolako lanak diren, eta egin behar diren lanak ezagutzen dituzten eskualdeko enpresak gonbidatzea.

Denak ados egonik, aho batez erabaki da aldatutako proiektuari dagokion gastua eta 2017ko baso jardueren proiektuan sartutako lanen esleipena arautuko duen baldintza plegua onartzea eta honako enpresak gonbidatzea: Zibur, Desbroces Berragu, Basolan Sociedad Microcooperativa, Sergio Hernandez, José Luis Saragüeta. Ion Erneta eta Mendi Lan

6.- 6.- 2018KO BASO JARDUEREN DEIALDIA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta erran du 2017-2018 Baso Jardueren deialdiari dagokionez, Batzordean onartu bezala, parte hartzea proposatu du, 2016-2017an sartu ez ziren obrak oraingoan aurkeztuz, bai eta Lastur, Odia, eta beste eremuetako areken garbiketa ere eta Martinez Choperena zinegotziarekin elkartuko da zerbait gehiago sartu behar den adosteko.

Denak ados daudenez eta aurrekontua onartuta, aho batez erabaki da 2018ko baso jardueren deialdian parte hartzea, aipatutako lanak sartuz eta proiektua prestatuz.

7.- AURREKONTU EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA INDARGABETZEKO MOZIOA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du NUKFak Aurrekontu Egonkortasunari buruzko mozioa onartzea proposatu duela eta mozio hori zinegotzi guztien esku egon dela, Udalak horren antzeko bertze mozio batzuk onartu dituela eta uste duela horrelako mozioak onartu behar direla Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea aldatzeko, Udalen kalterako baita, murrizketak ezarri dituelako, gehienbat gurea bezala Udalek ekonomia osasuntsua eta gastatzeko ahalmena dutenen kasuan.

Martinez Rey zinegotziak galdetu dio idazkariari mozioa jaso duen eta berak ezetz erantzun dio, ez duela jaso.

Udalbatzak erabaki du aho batez honako mozioa onartzea:

AURREKONTU EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA INDARGABETZEA

Apirilaren 27ko Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak, Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua garatzen duenak, hiru zerga-arau ezartzen ditu, nahitaez bete beharrekoak: aurrekontu-oreka edo -egonkortasuna, finantza-iraunkortasuna edo zorraren muga eta gastu-araua. Legeak, besteak beste, dio Nafarroako toki-entitateek aurrekontu-oreka edo superabita eduki behar dutela, eta superabita erabiliko dutela zorraren maila gutxitzeko. Gerora, aldatu egin zen xedapen hori, udalei zenbait betekizun betetzea posible egiteko eta superabitaren parte bat erabil zezaten finantzaz bezainbatean jasagarriak diren inbertsioetarako. Inbertsio horiek ez dituzte ezein kasutan ere udalerrien eta herritarren beharrak asetzen.

Legeak aipatzen duen gastu-arauari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak dio ezin izanen dela gainditu estatu espainiarraren ekonomiak epe ertainean duen BPGren hazkundearen erreferentzia-tasa, eta ehuneko 2,2 ezartzen du gastu konputagarriaren hazkunde-tasa gisara 2017rako.

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen aplikazioak eta horren garapenak berekin dakartzan mugek zuzenean jotzen dute Tokiko Entitateen kontra, haien eskumenen eta izaeraren beraren kontra, eta kolpe ezin latzagoa ematen diote munizipalismoari. Legeak izaera birzentralizatzailea dauka, eta herritarren zerbitzura dauden administrazio ezberdinen jarduna gutxitu eta mugatzen du, halako moduz non udal asko praktikan esku-hartuak diren, eta gaitasunik gabe geratzen diren, herritarren premia handieneko beharrak asetzeko.

Krisiaren aitzakiaz, oztopoak jarri dira tokiko gobernuek ez dezaten plantilla handitu behar besteko langileez, gero eta handiagoak diren desparekotasunei aurre egiteko, aterpe-premia asetzeko, modernizatzeko eta abarretarako. Eta, milioietako superabitak sortzera behartuak izan dira, bankuei ordaintzeko, prekarizazioa eta desparekotasunak areagotzen diren bitartean.

Hartara, birzentralizazio-politikak eta muturreko austeritate-politikek eragindako murrizketa sistematikoak ikusita, beharrezkoa da udalei autonomia eta arautze-ahalmen handiagoa ematea, ez daitezen derrigorturik

egon kutxan milioietako superabitak metatzera edo zorra ordaintzera bideratzera. Izan ere, Tokiko Entitateek beharrezko dituzte baliabide horiek, gizarte-kohesioari eusteko, tokiko ekoizpen-ehuna finkatzeko, langabezia murrizten duen jarduera ekonomikoa sortzeko eta egoera okerrean daudenei laguntza emateko.

Testuinguru horretan, Nafarroako Udalerriok lanean segitu behar dugu herri-borondatearen eta legearen arabera dagokigun autonomiaren alde. Horren adibiderik garbiena dugu Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen-aldarri kapena eta -garapena, bere erakundeak administratu eta antolatzeko. Ez da onargarri Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ahalmen hori usurpatzea eta Nafarroako tokiko erakundeak beren jardun egokia eta inbertsio-gaitasuna eragozten duten ekonomia- eta aurrekontu-irizpideen eraginpean ezartzea.

Horrenbestez, Lege horren onespren eta garapenarekin ukatu egiten zaie Nafarroako Tokiko Entitateei erakunde diren aldetik dagokien gaitasuna eta ekimena. Eta, noski, Estatuko gainerako entitate eta erakundeei ere. Eta hori ez da onargarria. Alderdiez eta ideologiez harago, kontua da gure erakundeen ahalmen ekonomikoa eta finantzarioa defendatzea. Jarrera bateragarria bilatu behar delakoan gaude, erakunde guztiak elkar hartzen dituen, lege hori aplikatzea eta gure udalerrietako herritarrak zigortzea ekidite aldera.

Horregatik guztiagatik Erroibarko Udaleko osoko bilkurak honako hau erabaki du:

- 1.- Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren edukia errefusatzea.
- 2.- Espainiako Gobernuak premiatzea aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legea ahal denik eta azkarren indargabetzeko hartu beharreko neurriak urgentziaz har ditzan.
- 3.- Herritarrei eduki honen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

Akordio honen berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari.

8.- NAFARROAKO FORUZAINGOKO PLAN ZUZENTZAILEARI BURUZKO MOZIOA

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta mozioari buruzko informazioa eman du, Nafarroako Legebiltzarrak onartutako mozioa dela esanez, legebiltzarreko lau taldek proposatua eta Foruzaingoko Plan Zuzentzaile berriaren alde egiten du. Hori guztia gurea Europako polizia gehien daukan herrialdea baita eta lortu nahi baita Foruzaingoa Nafarroan erreferentziazko polizia izatea, eskumen guztiak bere gain hartuz, Ertzaintzak edo Esquadra Mossoek bezala, guardia zibilak eta nazioko poliziak gero eta eskumen gutxiago izan dezaten.

Garralda jk. hitza hartu du eta esan du mozioa bertze poliziak baztertzen dituela, eta gurea bezalako Udal batek ez duela gaiari buruz gehiegi esaterik eta ez duela mozioa onartuko. Bere ustez polizia guztiak dira beharrezkoa, baliagarriak eta ez dira baztertu behar, eta Foruzaingoak baditu eskumenak trafikoari, ingurumenari, eta bertze gai batzuei dagokienez.

Villanueva zinegotziak iritzi berbera dauka. Juanarena jk. hitza hartu du eta erran du bere ustez Nafarroako Gobernuaren eta Estatuaren arteko kontua dela. Martinez Rey zinegotziak dio mozio honen bidez Foruzaingoari laguntza eman nahi zaiola, eskumen gehiago lor dezan eta gaineratu du batzuetan nafar nortasuna aldarrikatzen dugula baina gero ez dugula horren alde egiten. Martinez Choperena zinegotziak hitza hartu du eta erran du Foruaren Hobekuntzan aurreikusita dagoela eskumen gehiago lortzea eta hori dela landu beharreko ildo.

Eztabaidatu ondoren udalbatzak erabaki du aldeko hiru botoz (Martinez Choperena, Juanarena Apesteguia eta Martinez Rey) eta aurkako bi botoz (Villanueva Azcarate eta Garralda Erro) honako mozioa onartzea eta tramitatzea:

“FORUZAINGOAREN PLAN ZUZENTZAILEARI BURUZKO MOZIOA

Herritarrei Foruzaingoaren 2016-2020ko Plan Zuzentzailean parte hartzeko aukera ematea onartu zuen Nafarroako Gobernuak 2017ko apirilaren 26an.

Plan Zuzentzailea –Gobernuaren Atarian jasota dagoenez– Foruzaingoaren erreferentziako tresna estrategikoa da, etorkizuna aurreikusteko, aldatetara egokitzeko eta baliabide nahiz instalazioak proposatutako helburuen arabera moldatzeko aukera ematen baitio, bat-batekotasunak saihestearren. Hori guztia egoera politiko eta sozial berriaren testuinguruan; izan ere, aurreko plan zuzentzaileak gaindituta daude eta Foruzaingoaren eginkizunak zehaztu egin behar dira, Nafarroako polizia-eredua optimizatzearen eta eredu horren arabera baliabideak, bitartekoak eta aurrekontua antolatu eta esleitzearren, kudeaketa zorrotzagoa bermatzeko betiere jarduerak koordinatuta eta herritarren parte-hartzea bermatuta.

Horregatik, Udal honek honako hau erabaki du:

Lehena.-Nafarroako Foruzaingoa gure komunitateko erreferentziako poliziatzat hartzea, segurtasun publikoko eskumenak eraginkortasunez eta efizientziaz betetzeko gai den polizia integrala izanik.

Bigarrena.-Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari eskatzea izapidetzen ari den Foruzaingoaren Plan Zuzentzailean Hirugarren agertokiaren alde egitea aurreikusitakoen artetik; hain zuzen ere, Esklusibotasuneko Polizia Ereduaren alde, Estatuak eskualda ditzakeen Trafiko eta Bide-segurtasuneko, Herritarren Segurtasuneko eta Ingurumeneko eskumen guztiak hartu eta baliatzeko. Eta Estatuarekin egin beharreko negoziazioa egingo da, beharrezkoak diren foruzainen plantilla garatzeko, betiere garapen eta zabalkuntza hori gertatzearekin batera Estatuako segurtasun-indarrek, aldi berean, eginkizun eta eskumen horiek berak betetzeari utzita.

Hirugarrena.-Esklusibotasuneko Polizia Eredua izango da Nafarroako Gobernuak epe ertainean bete beharreko helburua, arian-arian eta aurrekontuko baliabideen arabera. Nolanahi ere, esklusibotasuneko eredu horren kostua Ekonomia Itunaren negoziatioan aztertu beharko da, Estatuak onartu behar baitu eta txertatu behar baitu kostu hori Nafarroak bere gain hartzen duen kargatzat, Nafarroaren eta Estatuaren arteko Ekonomia Itunaren ondoriozko ekarpena kalkulatzeko garaian.

Laugarrena.-Guk defendatzen dugun polizia-ereduan, Nafarroako Foruzaingoak honelakoa izan beharko luke:

-Polizia demokratikoa, egiten dituen jardun, kudeaketa-lan eta emaitzen berri Gobernuari ez ezik –polizia zuzentzen duen aldetik–, herritarrei ere emanez –herritarren zerbitzura dagoen aldetik–.

-Giza eskubide guztiak errespetatuko dituen polizia, funtzionamendua arautuko duen Lege eta guzti, eta Poliziaren Jokabideari eta Etikari buruzko Deontologia Kodea ere baduena, honako hauetan oinarrituta: Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Poliziarentzako Giza Eskubideei buruzko Araudi eta Jardunbidean, eta Europako Kontseiluak gomendatutako Poliziaren Etikaren Europako Kodean.

-Gertuko polizia herritarrentzat, bi inguruneen ezagutza sakonean oinarrituta jarduten duena, gaitasun analitiko handiaren bitartez.

-Elkar eragiten duen polizia, bai herritarrekin, bai elkarteekin, bai erakunde publiko nahiz pribatuekin, eta bai herritarren ongizateaz eta segurtasunaz arduratzen diren beste erakunde batzuekin, Segurtasun Publikoari buruzko Foru Legearen esparruan plan taktiko eta estrategikoak eginda.

-Berezko eta **Gobernuaren** barne-kontrolako mekanismoak ez ezik, Poliziari buruzko Foru Legean aurreikusi beharreko **Kanpo Batzorde Independenteari** ere atxikita ***jardun behar duen polizia***.

-Prestakuntza teknikoa, humanistikoa, polizia-eginkizunak betetzeko profesionaltasuna eta kide guztien garapen pertsonala eta profesionala baldintza eta aukera berdinetan ***etengabe eta modu iraunkorrean sustatuko dituen polizia***.

-Nafarroan ofizialak diren bi hizkuntzetan jarduteko gai den polizia.

Bosgarrena.-*Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura eta Nafarroako Parlamentura helaraziko da.*

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 11:05ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.